

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanito Irizar Irizar

*Donostia,
Gipuzkoa
(1926-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Martuteneko Barkaiztegi baserrian jaioa. 10 senidetan gazteena. Aita bertakoa zuten, eta ama gertuko beste baserri batekoa, Goiatz-Erriberakoa. Martuteneko eskola publikoan ibili zen Juanito, eta baita gau eskolak hartzen ere. Baserriko lanetan jardun zuen umetatik. Amarekin joaten zen zaldi-karroan Groseko plazara; esneak partitzen zituen. Sagardotegia ere bada Barkaiztegi. 22 urte ingururekin txofertzan hasi zen, eta horretan ibili da erretiroa hartu artean: kamioiarekin, bere kasa. Martuteneko Maria Maizekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-109

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-26
- **Iraupena:** 129 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Irakasle errepublikar eta frankistak eskolan

- **Erref:** DON-109/003
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola publikora joaten zen. Neska-mutilak elkarrekin izaten ziren. Maisu-maistrak sarri aldatzen zituzten. Don Julian Perez izan zen bat, errepublikarra bera, eta gerran hil zuten. Tolosako militar bat ere izan zuten gerra garaian irakasle, Don Felix Esnaola. Auzoko emakume bat ere izan zuten irakasle.

2. Gau eskolak Juanita Larrazarekin euskaraz

- **Erref:** DON-109/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Zazpi urterekin hasi zen eskolan eta hamaika urterekin utzi, baserrian lan egiteko. Gaueko eskolara joaten ziren neguan, Juanita Larrazarekin, eskolan ez baizik ahal zuten lekuan. Klaseak erderaz izan arren, Juanitarekin euskaraz asko egiten zuten.

3. Arma instrukzioa umeentzat

- **Erref:** DON-109/005
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:10:38. **Bukatu:** 00:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerra osteko eskolan Cara al Sol kantatu behar izaten zuten, baita armak erabiltzeko instrukzioa jaso ere erreketeeekin.

4. Propinekin bizikleta erdibana

- **Erref:** DON-109/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:18:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Sagardotarako botilak garbitzearren propina jasotzen zuten eta horrekin bizikleta erosi zuten anaiak eta biak, Orbea markakoa. Ospitalak egiten ari ziren garaian, Barkaiztegira bizikletaz etortzen zen langile bati erosi zioten.

5. Umetako jolasak eta txori harrapaketa

- **Erref:** DON-109/009
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Gurdi gainean, pertika eta lardaiarekin ibiltzen ziren. Ziburu baten moduan erabiltzen zuten. Arriskutsua zen eta errieta egiten zieten ikusiz gero. San Juan sagarrak harrapatzen aritzen zen. Kilkerak, xoxo eta birigarroen kabiak harrapatzen zituzten. Txorikumeak harrapatu, hazi eta saldu egiten zituzten.

6. Txoriak harrapatzen

- **Erref:** DON-109/010
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Beraiek egiten zituzten txoriak harrapatzeko tranpak. Lau egurrekin sare bat lotzen zuten eta azpian harrapatzen zituzten txoriak. Burloia, tarina, berdoloia eta karnaba harrapatzen zituzten. Tiragomarekin ere harrapatzen zituzten. Erreklamoarekin ere harrapatzen zituzten txoriak, pasean zetozenak. Prozesua azaltzen du.

7. Errekako arrantza

- **Erref:** DON-109/011
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Errekan aingira asko izaten zen, amuarraina gutxi. Sardexka moduko batekin harrapatzen zituzten aingirak, etxean jateko. Aste Santuko ilbehera eta ilberrian jasotzen zituzten gehien. Angulak eta karramarroak ez ditu ezagutu.

8. Zilarrezko txanpona jaunartzeko opari

- **Erref:** DON-109/013
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:31:12. **Bukatu:** 00:32:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Jaunartzean opari berezia jaso zuen, zilarrezko txanpona. Haren erdia emazteari eman zion eta beste erdia berak darama giltzekin batera.

9. Txokolatea eta ogia eskolan

- **Erref:** DON-109/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:32:31. **Bukatu:** 00:35:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Eskolan ostegunetan txokolatea eta ogia ematen zieten gerra aurrean. Ogi frantsesa eta espainola aukeran izaten zuten. Gerora ogia egiten ikasi eta etxerako egiten hasi zen. Estraperloan ogia saltzen zuen batekin ikasi zuen. Irina kontrabandoan ekarri behar izaten zuten.

10. Oiartzungo errota ezkutuan

- **Erref:** DON-109/015
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:35:11. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Zaldi txikiarekin eta gurdiaekin ezkutuan eta gauez joaten ziren Oiartzunera artoa errota xehetzera.

11. Groseko plazara saltzera

- **Erref:** DON-109/016
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:39:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Idiak, behiak, zaldia eta barazkiak zituzten etxean. Groseko plazara joaten ziren barazkiak saltzera eta esnea banatzera ama eta biak. Soldadutzatik bueltan utzi zien lan haiei.

12. Baserriko lanabesak

- **Erref:** DON-109/020
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:43:34. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Idiekin edo, besterik ezean, behiekin lantzen zuten lurra. Goldea, harria, besabea eta aitzurrak erabiltzen zituzten. Laia aurreko belaunaldian utzi zitzaion erabiltzeari. Marka zertarako erabiltzen zen azaltzen du.

13. Txerrimonia, auzokoei txerrikiak banatzen

- **Erref:** DON-109/022
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:49:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Txerria hazten zuten etxean eta urtero pare bat hil. Lehen arkumeak eta ardiak ez ziren izaten. "Txerrimonia" ematen zuten, odolkiak, sahieskia, urdaila eta banatzen ziren. Etxeko txikiena izaten zen eramailea eta propinarekin bat jasotzen zuten.

14. Garoa biltzeko langintza

- **Erref:** DON-109/023
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:49:09. **Bukatu:** 00:52:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Garoa etxe inguruan izaten zuten baina Landarbasora joan beharra ere izaten zuten tarteka. Lan gogorra izaten zen, moztu eta prestatu, idiekin gurdia kargatu eta ilundu baino lehen etxeratu. Meta egiten zen etxe ondoan.

15. Baserriko jatorduak

- **Erref:** DON-109/025
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:53:13. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Bederatziak aldean gosaltzen zuten. Soroan lanean ari baziren, zestoan eramaten zien norbaitek, piper gorriak bakailaoarekin adibidez. Bazkaria ordubatak aldean. Meriendatan sardin zaharrak, gazta... jaten zituzten. Gauez gisatua, arrairen bat afaltzen zuten. Babarruna eguneroko jana zen eta igandetan garbantzuaz azekin. Patata ere nahikoa izaten zuten.

16. Ehun mila litro sagardo

- **Erref:** DON-109/031
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:04:37. **Bukatu:** 01:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Hiru hilabete inguru behar izaten zen sagardoa egiteko. 100.000 litro inguru egiten zituzten. Botilatan banatu egiten zituzten, baita Loiolako sagardotegira eraman ere karrote barriketan.

17. Txisko izeneko upela

- **Erref:** DON-109/032
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:06:29. **Bukatu:** 01:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Barrika-motak. Etzandakoak eta zutikakoak izaten ziren. Txiskoak bi zati izaten zituen.

18. Sagardoa edalontzi txikitan

- **Erref:** DON-109/033
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:08:31. **Bukatu:** 01:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Jende asko joaten zen Barkaiztegira sagardotegira. Edalontziak txikiak izaten ziren, 5 eta 10 zentimotakoak. Urte sasoi batean bakarrik egoten zen zabalik eta gainontzeko sagardoa litroko botilatan eta txanpain botilatan sartzen zuten. Jatekoa ere ematen zuten.

19. "Mojon" eta "fuera mojon"

- **Erref:** DON-109/034
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:09:45. **Bukatu:** 01:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Barkaiztegin jatekoa ere ematen zuten eta nola izaten zen antzezten du. "Mojon" eta "fuera mojon" esaten zuten. Horren jatorria kontatzen du.

20. Bolotako txaparroa

- **Erref:** DON-109/036
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 01:14:13. **Bukatu:** 01:17:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Bolatokian eta tokan aritzen ziren. 10 xentimokoarekin potoan sartzera ere jokatzzen zuten. Apustu asko egiten zituzten. Bolotan bederatzi brillarekin jokatzzen zuten. "Txaparrua" brilla txiki bat izaten zen eta hura botaz gero, dena galtzen zen.</p>

21. Oialume eta Txomineneko erromeriak

- **Erref:** DON-109/037
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 01:17:51. **Bukatu:** 01:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Oialumera eta joaten ziren erromeriara. Markos izeneko soinu-jolea izaten zen han. Aurreko belaunaldia Txomineneara joaten ziren. Kantu bat erreztatzen du.

22. Ur eta erramu bedeinkatuak

- **Erref:** DON-109/041
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:28:21. **Bukatu:** 01:31:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ekaitzaren kontra ur bedeinkatua botatzen zuten leihora. Erramua ere bedeinkatzen zuten. San Juanetan ateetan lizar adaxka bat jartzea ohitura da. Sua urtero piztu izan dute.

23. Suberria Antxume baserrikoaren eskutik

- **Erref:** DON-109/043
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:33:31. **Bukatu:** 01:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Suberria. Sua etxeetan bedeinkatu eta etxeetara eramaten zen. Antxume baserrikoa ibiltzen zen. Erregetan opariak jasotzen zituzten.

24. Teila bat buruan hartuta ibili beharra

- **Erref:** DON-109/046

- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:39:41. **Bukatu:** 01:42:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Baserriren batean umeren bat jaiotakoan, atsolorra egiten zen. Txokolatea eta ardo goxoa hartzen zuten kontu-kontari. Elizan sartzea baino lehen amak irten beharra bazuen, teila bat buruan zuela irten behar zen.

25. Hildakoak elizbideetan zehar

- **Erref:** DON-109/047
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:42:02. **Bukatu:** 01:45:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hildakoan, kandela pizten zen elizan. Bakoitzak bere aulkiak izaten zituen elizan. Hildakoak bizkarrez eramaten ziren elizbideetan; ezin zen edozein bidetatik joan. Txandaka eramaten zuten gorpua eta tarteka gelditu egiten ziren errezatu eta bedeinkaziorako. Mantilla eta kaparekin joaten ziren emakumeak. Hiru izaten ziren gehiengan. Gizonek brazalet beltza eramaten zuten.

26. Euskaraz aritua eta saiaturia

- **Erref:** DON-109/050
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:50:02. **Bukatu:** 01:52:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskaraz egiteko ohitura izan du beti eta besteek ere egin dezaten saiaturia izan da. Ikastola sortzen eta gerora zuzendaritzan egon izan da.

27. Martuteneko ikastolaren hastapenak

- **Erref:** DON-109/051
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:52:28. **Bukatu:** 01:53:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Miren Josune Tolaretxipi izan zen Martuteneko ikastolako lehen irakaslea. Zazpi lagunekin hasi ziren.

28. Txofer lanetan

- **Erref:** DON-109/054
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:57:25. **Bukatu:** 02:00:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Txofer lanetan bere kasa hasi zenean, Chevrolet batekin ibiltzen zen. Gerora Pegaso bat hartu zuen. Hernaniko fabrika batentzat egiten zituen enkarguak. Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Miranda aldera joaten ziren. Bilbo aldera lau orduren buruan iristen ziren.

29. Txiskoa, bi zatiko upela

- **Erref:** DON-109/057
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 02:02:29. **Bukatu:** 02:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Txiskoaren inguruko azalpenak ematen ditu, bideo irudiak lagun.

30. Kinkilla, gosari txikirako

- **Erref:** DON-109/058
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 02:04:46. **Bukatu:** 02:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Kinkilla erakusten du eta azalpenak ematen ditu. Goizeko gosari txikia berotzeko erabiltzen zen, biberioia berotzeko ere bai. Petrolioarekin pizten zen.

31. Kutxak garraiatzeko egurrezko gurdia

- **Erref:** DON-109/059
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 02:06:38. **Bukatu:** 02:08:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Kutxak garraiatzeko egurrezko gurdia erakusten du eta azalpenak ematen ditu. Udaletxeak emandako patentea behar izaten zuten.

Irizar Irizar, Juanito | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com